

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroa Administrazioarekiko identifikazio elektronikorako CI@ve sistemarekin bat eginda dago gaurtik aurrera

Administrazio publiko guztiek partekatutako sistema honen laguntzaz, herritarren kudeaketa elektronikoa erraztu eta areagotzea du helburu

Osteguna, 2018.eko ekainak 7

Herritarrek Estatuko Administrazio Orokorrek sortutako [identifikazio elektronikorako CI@ve](#) sistema erabili ahal dute dagoeneko Nafarroako [Erregistro Elektronikoro Orokorrean](#) (EEO) eskaerak egiteko eta Nafarroako Gobernuaren hainbat zerbitzu telematikotan eskaerak aurkezteko; hala nola, eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko ziurtagirien erregistroa, lan-zentroen irekiera edo berrirekiera, espedienteak zuzentzea, dokumentazioa eranstea, etab.

Sistema honi gaineratu behar zaio egun indarrean dagoen identifikazio-aukeren eskaintza, [ziurtagiri digitalaren](#) bitartez (hau derrigorrezkoa da pertsona juridikoentzat) nahiz iazko apirilean [Erregistro Elektronikoro Orokorrean](#) eskaerak aurkeztu ahal izateko sortutako [Nafarroako Zerga Ogasunaren gakoa](#) (NAN+pasahitza) erabiliz.

[CI@ve](#) sistemak zerbitzu publikoetarako sarbidea bateratu eta sinplifikatzen du. Sistema honi esker, herritarrek erabiltzaile eta pasahitz bakarra behar dute Administrazio Publiko desberdinen aurrean identifikatzeko, administrazio eta zerbitzu desberdinetara sartzeko gako desberdinak gogoratu beharrik gabe. Enpresek, aldiz, ziurtagiri digitala erabiltzen jarraitu behar dute.

[CI@ve](#) sistemarekin, adibidez, [Herritarren Karpetara](#) sartzeko aukera izanen da. Estatuko Administrazio Orokorrek kudeatutako esparru honek Administrazioekiko harremanak erraztuko dizkie herritarrei, izan ere, honen bitartez, Administrazio publiko guztiek herritarren eskura jartzen dituzten informazio eta zerbitzu guztiak eskuratu ahalko dira, Nafarroako Administrazioaren jakinarazpen telematikoak barne, karpeta horretan bilduko baitira emandako helbide elektronikora bidaltzeaz gain.

PIN gakoa edo iraunkorra

Izapide telematiko bat egitean, erabiltzaileak erabakiko du identifikatzeko [CI@ve](#) gakoa erabili nahi ote duen, eta hala baldin bada, [CI@ve-PIN](#) ala [CI@ve-Iraunkorra](#) nahiago duen. [CI@ve-PIN](#) hautatuz gero, mugikorreko aplikazio bat erabili ahalko du PINa lortzeko. Internetez ere eskuratu ahalko du, eta kasu honetan, mugikorrera bidalitako SMS batez jasoko du esleitutako PINa, eta mugikorra ez da tramite horretarako baizik erabiliko. [CI@ve-Iraunkorra](#) hautatuz gero, sisteman alta egitean emandako pasahitza erabiliko du tramitazio arloan sartzeko.

[Cl@ve](#) sistema erabiltzeko, nahitaezkoa da [erregistratuta](#) egotea. Ziurtagiri digitala edukiz gero, norberaren ordenagailutik egin ahalko da “[Internet bidez ziurtagiri elektronikoarekin edo NAN elektronikoarekin](#)” orrian zehaztutako jarraibideen arabera. Ziurtagiri digitala ez dutenek modu presentzian egin beharko dute, eta horretarako, Nafarroako Gobernuak foru geografía osoan zehar sakabanatuta duen [bulego-sareaz](#) baliatu ahalko da. Horrez gain, Estatuko Administrazio Orokorrak Nafarroan [Cl@ve](#) erregistroa egiteko dituen bulegoetara jo daiteke (kontsultatu hemen zure [helbidetik gertuen dagoen bulegoa](#)).

Nafarroako Gobernuaren zerbitzu telematikoa identifikazio-sistema berri honetara egokitzeko lanak Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentua Nafarroako Gobernuan Administrazio Elektronikoa garatzeko egiten ari den ekintzei atxikita gauzatu dira, 30/2015 eta 40/2015 legeetan ezarritako ildoan arabera.

Hilabete honetatik aurrera, [Cl@ve](#) gakoaren bitartez, eskari handia duten tramitek online egiteko aukera izanen da; adibidez, enplegu publikoari lotutakoak: len eskaintza publikoetan izena ematea, aldi bateko kontratazio-zerrendak kontsultatzea, plaza hutsak hautatzea edo merituak eguneratzea. Irakasleen kasuan, lanpostuen esleipen telematikoan (LET) parte hartzeko eskaera tramitatu, egindako zerbitzuen orria bistaratu eta lekualdatze-lehiaketetan parte hartu ahalko dute.

Era berean, [Cl@ve](#) sistemaren bidez, ikasteko beka orokorren tramitazioa eta Educa beken berariazko deialdia egin ahalko dira; bata zein bestea herritarren barra-barra eskatzen dituzten zerbitzuak dira. Pixkanaka-pixkanaka, sistema hau Nafarroako Gobernuaren zerbitzu telematiko guztietan txertatuz joango da.

170.000 eskaera telematiko 2017an

Informatika, Telekomunikazio eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak bildutako datuen arabera, herritarrek 170.000 eskaera tramitatu zituen telematikoki, eta horien artean, bolumenagatik, enplegu publikoari lotutako 38.000 online tramiteak eta etxebizitzaren arloko (eraikinen ebaluazio-ziurtagiriak, etxebizitza babestuaren erroldako izen emateak...) zerbitzuei buruzko 30.000 tramiteak nabarmen daitezke.